



Eskuz esku eta taldean, JAZARPENARI STOP!

Gurasoen txokoa Konfidantzaren pedagogia
Ikasleen txokoa Gazteok ere euskararen alde



agenda

URTARRILA

HAUR HEZKUNTZA

5 urte: Makilaxiki ipuina. Danborrada.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 2: Pasaiaiko Albaola museora bisita.

DBH:

DBH 4: Donostiara antzerkia ikustera.

DBHO:

DBHO 1: Goiekira irteera. Irizar enpresa ikustera.

OTSAILA

HAUR HEZKUNTZA

Zozomikote ipuinaren antzezpena.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 2: Lehen gizakiaren antzezpena. Ekaingo kobazulora irteera.

LH 1 eta LH2: Zozomikoteren ipuin-kontaketa.

LH 3: Solasaldia guraso fisioterapeuta batekin.

DBH

DBH 4: Donostiaren historia eta Txuri urdin.

OROKORRA

Euskaraz Bizi eguna. Inauteriak.

MARTXOA

HAUR HEZKUNTZA

2 eta 3 urte: Azokara bisita.

4 urte: Zirko ikuskizuna.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 1: D'elikatuz. Pilota saioa ama batekin.

LH 2: Donostiako Kutxa-espazioara irteera.

LH 3: Solasaldia guraso ginekologo baten eskutik. Pilota ikastolan. Ahoz-ahoz kanpainaren emanaldia.

LH 6: Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertura.

DBH

Mikroipuin lehiaketaren sari banaketa.

DBH 2: Sexu heziketa.

DBH 3: Bertako nekazari baten hitzaldia.

Somportera eskiatzera.

DBH 4: Sexu heziketa. Lagunarteko hizkerari buruzko tailerra. Julen Gabiria idazlearekin solasaldia.

DBHO

Mikroipuin lehiaketaren sari banaketa.

DBHO 1: Uretako sorospen ikastaroa.

Ordiziako irakurle taldean solasaldia.

DBHO 2: Ikimilikiliklik erakusketara bisita.

APIRILA

HAUR HEZKUNTZA

Txiki parkera.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 1: Ataungo Barandiaran museora irteera.

LH 3: Solasaldia prestatzaile fisikoa den guraso baten eskutik.

LH 5: D'elikatuz-Azoka.

LH 6: Mirandaola-Legazpi. Arrate Egaña idazlearekin elkarrizketa.

DBH

DBH 1: Mendi irteera Uzturrera.

DBH 2: Mendi irteera Urbiara.

DBH 4: Lisboara bidaia, aste osorako.

OROKORRA

Kultur Astea. Korrika txikia.



AMAIA AYERRA
Jakintza ikastolako zuzendaria

Zenbat buru, hainbat aburu

Bigarren hiruhilabetea bukatzeaz dago. Aurtengo luzea benetan! Abenduko oporraldi aurretik hasi eta apirila hasiera bitarte luzatu da. Neguko hotzetatik, udaberri giroko azken egunok arte.

Luze; Luze bezain sakona: urtarrean KIVA programa ezarri, Prakagorriren marxa geletan ziurtatu, ebaluazio eta porfolioa lantzeko Neus San Marti Bartzelonatik geurera gonbidatu... eta horri erantsi eguneroko errutinan sortzen diren arazoei ere aurrez aurre begiratu eta aurrera egitea ere.

Beti kexu agertzen garela aipatzen dutenak ere badira, baina intentsitate honekin lan egiteak duen desgastea ez

da nolana hiko! Hezkuntzari egiten eta exijitzen zaizkion eskakizunak ez dira errazak betetzen eta askotan kontraesanekoak ere badira: Ikastolan ikasi ala hezi? Edukiak ala balioak? Irakatsi ala ikasi? Bakarrik ala elkarlanean?

Dikotomia horiei eta sortuko direnei erantzuteak hau guztia suposatzen du: Hausnarketa eta elkarrizketa asko, entzute eta hitz egiteko une asko, eztabaidatu eta adoste prozesuak gauzatzea, eta denbora, enpatia eta batzutan sinpatia apur bat ere bai. Garbi baitago gutako bakoitzak erantzun propioa ematen diola galdera bakoitzari: zenbat buru, hainbat aburu!

A ze talde puxka!

Inoiz baina azkarrago gauzatu genituen inskripzioak, lekurik izango ez genuenaren beldur eta eskerrak, 2017ko Lilatoira Jakintza Ikastolatik 64 kide joan baikara. Poliki-poliki indartzen eta sustraitzen doan kanpo-ekintza bat da: igande goiz bateko korrika saio bat baino gehiago! Aurreko asteetako entrenamenduak, egun bertako planak, kamiseta kontuak, argazkiak, selfiak... **ERREPIKATZEKO MODUKOIA!**



OPINIONES. Pronto acabará este segundo trimestre, tan largo como intenso. En enero se implantó el sistema KIVA y ello trajo consigo una serie de quehaceres que se sumaron a los del día a día. Trabajar con esta intensidad produce un fuerte desgaste. Además, lo que se le exige a la educación es difícil de cumplir y a veces contradictorio: ¿aprender o educar?, ¿contenido o valores?, ¿enseñar o aprender?... Las respuestas no son sencillas y precisan mucha reflexión, diálogo, debate, tiempo, empatía, acuerdo... porque cada uno tiene su opinión. **¡VAYA GRUPO!** Un grupo de 64 mujeres de Jakintza ha participado en la Lilaton, una actividad que cada vez está cogiendo más fuerza, porque es algo más que una carrera: los entrenamientos, los planes para el mismo domingo, las camisetas, los selfies... ¡PARA REPETIR!

GAZTEOK ERE EUSKARAREN ALDE!

Gu Hizpro taldekoak gara. Talde honetan euskara sustatzeko ekintzak proposatzen ditugu, eta ahal den neurrian aurrera eramaten lagundu.

Ikasturte honetan zehar, Euskararen eguna eta Euskaraz Bizi eguna antolatu ditugu, eta orain, korrika datorrela, ikastolako paisaia apaindu eta girotzeko asmoz hainbat eskulan egiten ari gara.

Gure taldeko bi ordezkaria eskualdeko Korrika batzordekide ere badira, eta bi urtero bezala, Jakintzako DBH eta DBHOKo ikasleen artean kilometro bat erostea proposatu dugu euskararen alde. Ea lortzen dugun!

Oso gustura gaude sortu den talde honekin eta bertan ikasi, lagundu eta parte hartzen jarraitzeko asmoa dugu. Gazteok ere euskararen alde!



KONFIDANTZAREN PEDAGOGIA GURASO ESKOLAN



Jakingo duzuen bezala, Jakintzak bere lana Konfidantzaren Pedagogian oinarritzea erabaki du, eta gurasoak metodologia berri honetan partaideak direnez, ezinbestekoa da honen nondik norakoa ezagutzea. Horretarako, Guraso Eskolan pedagogia berritzailearen inguruan lehenengo saioa egin da Haur Hezkuntzako zenbait irakasleren gidaritzapean. Bertan, oinarriak ezagutzeko aukera izan dute, baita orain arteko aldaketen inguruan hausnartzeko ere. 25 gurasok parte hartu dute guraso eskola honetan eta giro atsegina eta partehartzailean jardun dute. Datorren ikastaroa maiatzaren 2an izango da eta haurren atxikimendu mota ezberdinek beraien garapenean duten garrantzian sakonduko da.

LOS JÓVENES TAMBIÉN A FAVOR DEL EUSKARA. Desde el grupo Hizpro proponemos actividades para impulsar el euskara. Este curso hemos organizado el Día del Euskara y el Día Euskaraz Bizi y, ahora, con la llegada de la Korrika, estamos adornando la ikastola y realizando trabajos manuales para animar el ambiente. Además, dos miembros del grupo forman parte de la comisión comarcal de Korrika y como siempre, hemos propuesto comprar un kilómetro entre los alumnos de ESO y Bachillerato. ¡A ver si lo conseguimos! Estamos muy a gusto con la labor que realizamos desde este grupo y seguiremos trabajando. ¡Los jóvenes también estamos a favor del euskara!

LA PEDAGOGÍA DE LA CONFIANZA EN LA ESCUELA DE PADRES Y MADRES. La ikastola ha decidido implantar la Pedagogía de la Confianza y como los padres y madres son también parte de esta metodología, es necesario que conozcan sus pormenores. En la primera sesión organizada por la Escuela de Padres y Madres para tal fin han participado 25 personas que, guiadas por profesores de Infantil, han podido conocer los fundamentos de la nueva metodología y reflexionar sobre los cambios que se han introducido. El próximo curso tendrá lugar el 2 de mayo y en el mismo se hablará de la influencia que tienen en el desarrollo de los niños sus diferentes tipos de apego .

ESKOLA JAZARPENA IRAKASGAI

Urte berriaz geroztik KIVa ikastola da Jakintza. Eskola jazarpenari aurre egin eta hura murrizteko mundu mailako programarik eraginkorrena ezagutu eta eskola komunitate osoan txertatzeko lanean aritu da ikastola azken hiru hilabeteotan. Orain arte emandako pausuak eta sentitutako bizipenak bildu ditugu erreportaje honetan.



Euskal Herriko beste 51 ikastolarekin batera, eskola jazarpenari aurre egiteko KIVa programa jarri zuen martxan Jakintzak Eguberrietako oporrak bukatu berrikan. Finlandiako Turkuko Unibertsitateak garatutako programa horren helburu nagusia eskola mailan jazarpen kasurik ez gertatzea da, eta prebentzio lanari ematen zaio garrantzia. Horretarako, ikasmaterial sorta bat ekoitzi du –testu-liburuak, baliabide digitalak, webgune bat...–.

Material horren bidez, hainbat balio lantzen dituzte gelan ikasle-irakasleek, eta balio horiek landuz eskola jazarpena bera ere jorratzen dute: *bullying* kasuen aurrean izan beharreko jokabidea aztertu, erasotzailea salatu eta biktimaren alde jarri... Eskola jazarpena antzemateko baliabideak

irakasleen esku ere jartzen ditu KIVak, ikasleek *bullying* kasuak modu anonimoan salatzeke aukera tartean. Eta Jakintzan egin den moduan, 'KIVa taldea' sortzea ere proposatzen du.

Talde jokabidean eragin

Fenomeno globala ez ezik, fenomeno sozial edo taldeko fenomenoa ere bada eskola jazarpena, eta datuek argi erakusten dute hori. Mundu osoan, ikasleen (haur eta nerabe) %10ek jasan dute edo jasango dute *bullying*-a, ikasleen %8 izan dira edo izango dira eskola jazarpenaren egile, eta %7 haien laguntzaile. Lekuko diren ikasleen %20ak erasotzaileen aldeko jarrera hartzen dute, eta %17ak biktimaren aldekoa. Beste ikasle multzo handi bat (%34a) ez da eskola jazarpenaz ohartu ere egingo.

Eskola jazarpen kasu bakoitzean erasotzaile bat eta biktima bat daude, baina datuek erakusten dutenez, baita ikusle eta lekuko ugari ere. Jazarriarekiko nagusitasuna adierazteaz gain, eskola jazarpenaren helburua taldeko nagusitasuna lortzea ere bada, taldeko errekonozimendu soziala lortzea. Eta prebentzio lan hori egiteari berealdiko garrantzia ematen dio KIVa programak.

Finlandian ikasia dute dagoeneko, *bullying*-a desagerrarazi nahi bada, erasotzailearekin eta biktimarekin bezala, taldean ere lan egin behar dela. Taldearen jokabidean eraginez gero, eta taldea erasotzaileari babesa ematetik biktimarekiko enpatia lortzera igarotzen bada, erasotzailearen jokabidean ere eragina izaten duela jarrera horrek. Bien bitartean, biktimak

argi sentitu behar du helduen babesari eta laguntza duela, eta erasotzaileari, aldiz, argi adierazi behar zaio bere jokabidea onartezina dela. Eta prebentzioaz gain, esku-hartzea egotea eta jarraipena egitea proposatzen du KIVak.

Lehen urratsak Jakintzan

Programari hasiera emateko, KIVa Eguna ospatu zuen Jakintzak urtarrilaren 16an *Elkarrekin jazarpena geldiaraz dezagun* lemapean. Lehen mailatik hasi eta Batxilergora bitarteko ikasle guztiak medaila bat egin zuten egun horretan ikusgarri izateko, eta haien eskuaren silueta horma-irudi batean itsatsi zuten, mezu deigarri eta koloretsu bat osatuz. Horrez gain, ikasleek bi bertso sortu eta ikasi zituzten, eta arratsaldean jazarpenaren gaia lantzen duten hainbat film ikusi zituzten, hausnarketarako eta hizketarako tartea hartzearekin bat.

KIVA koadernoak antolatzen ere hasi ziren egun horretan –bi bertsoak bertan idatzi zituzten–, eta KIVA Kontratua zer izango zen ere azaldu zieten irakasleek ikasleei. Egun horretako bizipenak eta hortik aurrera emandako pausuak Mariaje Aranburu eta Maider Nadal irakasleen, eta 6. mailako Beñat Saez de Urabain, Jon Mujika, Maia Blanco, Aratz Oiarbide, Garazi Etxeberria eta Naroa Velazquez irakasleen ahotik jaso ditugu.

Jakintza Ikastolak oraingoz jaso duen ikas-materiala ikasturte honetarako da, eta ikasturtea amaitu bitartean hamar unitate landuko dituzte ikasgelan. Plana, hala ere, datozen bost urteei begirakoa da, eta datorren urtean material berria izango dute esku artean.

Txikiekin emozioak lantzen

Programa bi zatitan banatuta dago: bat Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleentzat (1, 2 eta 3. mailak) eta bestea Lehen Hezkuntzako bigarren ziklokoentzat (4, 5 eta 6. mailak). Hala ere, DBHkoek ere programan parte hartzea erabaki dute onurak ikusten dizkietela iritzita. «Esku-hartzea martxan jartzen hasi dira, nahiz eta prebentzioa beste modura landu. Nerabearoa beste adin bat da», zehaztu du Aranburuk. KIVA prozesua

MARIAJE ARANBURU (Irakaslea, eta KIVA taldeko arduraduna)

«KIVA programarekin ikaslea hausnartzen eta egoerak identifikatzen ari da, eta gelan horrelakorik ematen den ala ez ikusten»

BEÑAT SAEZ DE URABAIN (6. mailako ikaslea)

«Arazoak dituzten pertsonen gertatzen zaienaz hausnarketa egiteko aukera ematen du KIVak»

NAROA VELAZQUEZ (6. mailako ikaslea)

«Sare sozialetan kontuz ibili beharra dagoela ikasi dugu, argazkiak publikatzen badituzu hor gelditzen dira eta»



gidatzen 6-7 lagunek taldea ari da LHN, eta esku-hartzerako hiru lagunek talde bat dago osatuta. DBHN, beste 2-3 lagunek egiten dute esku-hartzea.

Hasierako unitate didaktikoetan sentimenduak, adimen emozionala... lantzen ari dira. «Horrek ez du esan nahi lehen egiten ez zenik, baina orain dena egituratuago eta gidatuago dago». Programak proposatzen du hamabostean behin ordu bete eskaintzea gaiari, eta Tutoretza ordua eta Giza Hezibidea ikasgaia erabiltzen dituzte horretarako. Jakintzaren kasuan, zenbait ikasle talde astero ari dira lanketa egiten, harik eta erritmo egokia hartu arte.

Emozioak eta hausnarketa ari dira batez ere lantzen lehen ziklokoekin, eta besteak beste, bisualizazio ariketak erabiltzen dituzte. «Taldea bat zer den, talde atsegina izateko zer behar den... Ikaslea hausnartzen eta egoerak identifikatzen ari da, eta gelan

horrelakorik ematen den ala ez ikusten». Hirugarren unitatetik aurrera bideo-joko bat ere badute, eta arauak agertzen ari zaizkie. Hauxe lehenengoa: *Inor ez da baztertua izango*.

Arau horiek KIVa Txokoan jartzen dituzte –LHko gela guztietan daude–. Gelan ikusgarria dagoen KIVa Kontratua ere badago, eta ikasle bakoitzak KIVa Koaderno dauka. Koaderno horretan ikasgai bakoitzean ezartzen diren arau horien dekalogoia osatuko du. Horrez gain, zaintza garaietan KIVa Txalekoak janzten dituzte irakasleek eta zaintzaileek.

Errespetuaz hausnartzen

Maider Nadalek, 6. mailako irakasleak, «era dinamikoago batean» lan egiteko aukera dauka bere taldearekin. «Jolasen bat edo beste egin dugu, baina gehienbat solasaldiak egin ditugu, eta ikasleek beraiek iritziak eman dituzte». Ikasgai bat bukatzen dutenean, etxerako lan bat izaten dute, landu duten gaiari buruz hausnartzea: «Errespetuaren inguruan aritu gara, eta ikasle bakoitzak bere hausnarketa intimoa egin du. Nahi izan duenak, bere hausnarketa azaltzeko aukera ere izan du gelan».

Elkarrizketara bildu diren sei ikasleei «ondo» iruditzen zaie ikastolan KIVa lantzea. «Arazoak dituzten pertsonen gertatzen zaien hausnartzeko» aukera ematen diela uste du Beñatek, eta Jon ere uste berekoa da. «Laguntza behar duten pertsonen laguntzeko, bai biktimari eta baita erasotzaileari ere», gaineratu du Maiak. Aratzen iritziak, ikasleei pentsaraztea eragiten die programak, eta arazoren bat dutenei laguntzeko ere bada. «Ikusten ari gara zenbat hutsegite egiten diren, eta guk halakorik ez egiteko balio du», nabarmendu du Garazik. Naroak kontzientziari egin dio aipamena: «Jazarpenik ez gertatzeko, gu kontzientziatzeko eta horrelako jarrerarik ez izateko da programa».

Hitz bakoitzaren esanahia ere lantzen ari dira 6. mailan, lehen zikloan ez bezala. Nadalen esanetan, «kontuz ibili beharra dago, *bullying* hitza modan dago, eta ez da aise erabiltzekoa.

Jazarpen motak bereizten ikasi behar dute ikasleek». Ikasleek Internetari eta sare sozialei egiten diete aipamena: «*Ziberbullying*-a ere badago. Gauzak grabatzen dira eta astakeriak igotzen dira youtuberak», esan du Jonek. Eta honakoa Naroak: «Sare sozialetan kontuz ibili beharra dagoela ikasi dugu, argazkiak publikatzen badituzu hor gelditzen dira eta».

Bukaeran galdetegia

Esku-hartze kasuren bat edo beste izan dute, Aranburuk adierazi duenez: «Egoera batzuk bizi izan ditugu, baina ikusi dugu erraz konpontzen direla. Hor KIVa taldea sartzen da ia. Lehenengo

gauza egoera identifikatzea da, eta jazarpena bada martxan jartzen gara. Gaur egun badakigu nola jokatu behar dugun, eta ondo aterako denaren esperantza daukagu».

Ikasturte bukaeran galdetegi bat pasatuko diete KIVa taldekoek ikasleei, eta hor ikusiko dute zein den ikastolaren errealitatea. Baleude, arazoak identifikatzen lagunduko die galdetegiak irakasleei. Finlandian 2009an hasi ziren programa horrekin eta gaur egun ikastetxe bakoitza bere erritmoan ari da lanean. Jakintzan oraintsu hasi dira, eta denborak esango du programa horrek hartuko duen norabidea.

Zer da KIVa?

Bullying-a edo eskola jazarpena prebenitu eta murrizteko programa.



Zer da 'bullying'-a edo jazarpena?

Portaera mingarria edo tratu umiliagarria ematea. Jazarpena harreman zapaltzaile baten adierazpena da, botere eta indar-abusua:

- Nahita egiten dena
- Behin eta berriz egiten dena
- Erlatiboki babesgabea den edo botere txikiagoa duen pertsona baten aurka egiten dena

Zer ez da 'bullying'-a edo jazarpena?

Ez da jazarpena...

- Liskar bat
- Eztabaida bat
- Borroka bat

Jazarpen motak

- Ahozko jazarpena
- Zeharkako jazarpena
- Jazarpen fisikoa
- Ziberjazarpena

Jazarpena ez da soilik jazarle eta biktimen kontua

- Gehienetan ikaskide talde bat bertan izaten da
- Funtsezkoa da lekuko diren ikaskideen erreakzioa

Helburuak

- Jazarpena murriztea
- Jazarpen egoerak gerta daitezen eragozteak
- Jazarpenak eragindako ondorio negatiboak apaltzea

KIVa BERTSOAK

Zer da ba gozatzea bestearen min ezin gara isildu guztia jakinez gauzak garbi esanda ta aurre eginez bideratuko dugu erantzukizunez ikastolan nahi dugu bizi atseginez

Eguneroko mina min handiegia taldea, gu, babesa laguntza begia KIVAk aberastu du gure hiztegia ezin da ezkutuan geratu egia irribarrea bedi denen aurpegia



La asignatura del acoso escolar y el programa KIVa

Desde principios de año, Jakintza es una de las 51 ikastolas KIVa de Euskal Herria que lucha contra el acoso escolar. El objetivo de este programa desarrollado por la Universidad de Turku (Finlandia) es acabar con los casos de acoso a través de la prevención. La universidad ha producido diverso material para trabajar una serie valores entre profesores y alumnos. La actitud ante el bullying es uno de esos valores a tratar, promoviendo la denuncia del agresor y el posicionamiento a favor de la víctima. KIVa también ofrece a los profesores herramientas para detectar el acoso (la denuncia anónima, por ejemplo) y al centro le propone la creación de un grupo o comisión KIVa, que en Jakintza ya está en marcha.

El acoso escolar es un fenómeno global, social y grupal: en el mundo entero el 10% de los alumnos lo sufren o sufrirán; el 8% son o serán acosadores y un 7% colaboradores. Además, el 20% se posicionan a favor del acosador y el 17% a favor de la víctima. El 34% no se enteran del caso de acoso. En todos los casos hay un acosador y una víctima, pero también muchos testigos y espectadores. Por eso, es muy importante trabajar con el grupo, para que deje de proteger al acosador y sienta empatía por la víctima. Mientras, la víctima ha de sentir el apoyo de los mayores y al acosador hay que dejarle claro que su comportamiento es intolerable. Además de la prevención, KIVa también propone la intervención y el seguimiento.

El programa KIVa tiene una duración de 5 años. Jakintza lo inició el 16 de enero con la celebración del Día KIVa bajo el lema *Paremos el acoso entre todos*. Todos los alumnos desde Primaria hasta Bachiller llevaron ese día una medalla identificativa, dibujaron un mural con las siluetas de sus manos, compusieron dos bertsos y vieron varias películas sobre el acoso escolar. Ese mismo día comenzaron también a organizar el Cuaderno KIVa. Todo ello, y los pasos que se han dado con posterioridad, nos lo han contado en tertulia las profesoras Mariage Aranburu y Maider Nadal y los alumnos de 6º Beñat Saez de Urabain, Jon Mujika, Maia Blanco, Aratz Oiarbide, Garazi Etxeberria y Naroa Velázquez.

El programa KIVa consta de dos partes: una para aplicar en el primer ciclo de Primaria y la otra en el segundo ciclo, aunque los de ESO también van a participar al considerarlo interesante, según ha comentado la profesora Mariage Aranburu. Cada 15 días se le dedica una hora: se trabajan los sentimientos, las emociones, la reflexión... por medio de juegos y ejercicios que tienen como objetivo establecer unas normas. Esas normas se colocan en el Txoko KIVa que hay en todas las aulas, donde también está, muy visible, el Contrato KIVa. Además, cada alumno tiene su Cuaderno KIVa y los profesores y cuidadores visten el Chaleco KIVa en las horas de recreo. La profesora Maider Nadal comenta que la aplicación del programa en clase es muy dinámica y que además de hacer los juegos y ejercicios, también hablan mucho con el objetivo de potenciar la reflexión.

A los seis alumnos que han participado en la tertulia les parece «bien» el programa KIVa porque «ayuda a reflexionar sobre las personas que tienen problemas», «es para ayudar a las víctimas y a los agresores» o «sirve para concienciar sobre el acoso». Los jóvenes también hablan sobre el ziberbullying, otro tipo de acoso que se hace a través de Internet y de las redes sociales y que también se puede prevenir.

A finales de curso se realizará una encuesta a los alumnos para conocer la realidad de la ikastola y servirá para identificar los problemas, si los hubiere. En Finlandia comenzaron a aplicar el programa KIVa en 2009 y en la actualidad cada centro escolar trabaja a su ritmo. En Jakintza acaban de empezar y el tiempo decidirá la dirección que toma el programa.


LH 4 PENTSAMENDU BISUALA LANTZEN

Hitzak berak adierazten duen moduan, pentsamendu bisuala –*visual thinking* ingelesez– marrazki erraz batzuen bidez ideiak eta pentsamenduak erakutsi eta maneiatzeko tresna bat da. Beste era batera esanda, hainbat tokitara heltzeko pentsamendu desberdinak irudikatzen dituen tresna bat da.

Gizakiak betidanik marrazkiak erabili izan ditu komunikatzeko (kobazuloetan begiratzea besterik ez dago), baina egungo hezkuntza sisteman nazioarteko hizkuntza hau bigarren mailan kokatuta dago.

Eta zergatik ari gara hau bultzatzen 4. mailan? Bada, marrazten dena ikasten delako, ulermena eta memoria hobetzen direlako, sormena sustatzen delako, garunaren bi hemisferioak lanean eta konexioan jartzen dituelako, ideiak antolatzen eta erlazionatzeko egundoko laguntza ematen delako, informazioa kudeatzeko trebetasunak garatzen dituelako... Alegia, gure ikasleek etorkizunerako beharrezkoak izango dituzten konpetentziak eta trebetasunak garatzen laguntzen delako. Gainera, gure gizartearen komunikazio bisuala geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari da eta horretan alfabetatzea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Ez dago marrazkilari ona izan beharrik hau egiteko eta 4. mailakoek saiakera egiteko konpromisoa hartu dute. Gure ikasleek eginiko lanak ikustea besterik ez dago metodologia honek duen garrantziaz eta ikasleen aurrerapenez jabetzeko.



MASTER CHEF-ak

Aita! Ama! Eseri lasai sofan, gaur afaria nik prestatuko dut eta! Hau entzuten baduzue, ez harritu. Izan ere, gure neska-mutiek, ENERGIA HAZTEKO izeneko programa hezitzailea daramate aurrera serio arraiot! Programa horrek bizi-ohitura osasungarriak ikastea du helburu. Profesional espezializatuek sortutako programa bat da.

Gure ikasleak elikadura orekatua eta bizimodu osasungarria izatearen garrantziaz sentsibilizatzea da ENERGIA HAZTEKO programaren helburua.

Erabiltzen dugun metodologia ludikoa da, parte-hartzailea. Taldeka elikadura eta bizimodu osasungarriak ardatz izango dituzten proiektu txiki batzuk egingo ditugu, beti ere jarrera erakitzzailea, arduratsua eta kooperatiboa bultzatuz.

Alde batetik ikasgelan eman beharreko material didaktikoan oinarritzen da, baina, bestetik, tailer praktikoak ere egingo dira, ikasleek ikasgelan ikasitakoa praktikan jar dezaten. Hartu beharreko ezagutzen artean honakoak daude: elikagaien taldeak, piramide eta etiketa nutrizionalak, dieta mediterranea eta bertako produktuak kontsumitzearen garrantzia.

Gure ikasleak Garberara joan dira tailer praktiko bat egitea. Lehenik, sukaldari batekin zer prestatu behar duten adostu dute,

ondoren, taldeka erosketak egitera joan dira, eta azkenik, sukaldariaren laguntzarekin marmitako ederra prestatu dute eta baita jan ere! Ez da asko sobratu! Hauek bai sukaldariak!



– El ser humano siempre ha utilizado el dibujo para comunicarse. Por ello, en 4º de Primaria han empezado a trabajar con **el pensamiento visual**, un instrumento basado en el dibujo que ayuda a los alumnos a desarrollar competencias y habilidades necesarias para su futuro. Además, la comunicación visual tiene cada vez mayor importancia y es indispensable profundizar en este lenguaje. – *Energía para crecer* es el programa con el que los alumnos están aprendiendo a llevar una alimentación equilibrada y hábitos saludables de vida. La metodología se basa en material didáctico para trabajar en el aula pero también en talleres prácticos, como el que **nuestros master chefs** realizaron en Garbera con la ayuda de un cocinero.

ITSASONTZI LASTERKETA

Bigarren ebaluazioan DBH2ko ikasleak buru belarri ibili dira beraien hiru dimentsiotako ontzia diseinatzen. Behin hiru dimentsiotan diseinatzeko programarekin trebatu ondoren, taldeka elkartu dira, eta PLA plastikoa eta goma bakarrik baliabide bezala hartuz, uretan bizkorrena izango den ontzia diseinatzea izan dute helburu.

Diseinuak garrantzi handia duenez (baita oreka eta pisuak ere), beraien hasierako zirriborro eta ideietatik abiatuz, ordenagailuz diseinatu eta 3D inprimagailuan inprimatu dituzte pieza desberdinak. Neurriekin buruhauste txiki batzuk izan arren, berehala konpondu dituzte eta denek prest izan dituztenean, bi gelatan lehiaketa egin dute!

Lehiaketa hasi aurretik probak egiten ibili dira beraien taldeko taktika ondo finkatu eta azken momentuko ukituak emanez. Hor bai hor tentsioa eta urduritasuna! Eta azkenean iritsi da momentua: "3,2,1...AURRERA!".



ILUSTRATZEN

Elkar ilustrazio eta Ipuin Lehiaketak haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzea du helburu. Horretarako hiru modalitate antolatu dira eta 3.mailako gure ikasleek *Ipuina ilustratu* modalitatean ari dira buru-berlarri lanean. Ana Jakak idatzitako *Haur bat espazioan* ipuina ilustratzen ari dira. Egokia iruditu zaigu Giza Hezibideko orduetan ekintza hori txertatzea. Izan ere, elkarren arteko desberdintasunak, txikiak edota handiak izan, guztiontzat aberasgarriak izan behar dira.

"Munduan badira kolore askotako pertsonak: laranja, arrosak, marroiak... Batzuk ilunagoak gara eta beste batzuk argiagoak, eta egon badaude ia-ia kolorerik ez dutenak ere, denetarik egon behar duelako munduan.

Eta, agian horregatik, haur txuri-txuri bat jaio zen herri txiki batean. Hain zen txuria, gurasoek ilargi izena jarri zioten, ilargi betearen argitasuna zuelako haren azalak. Ilea ere txuria zuen eta begi urdin argiak, ur garbiaren kolorekoak."

"Ilargiren irakaslea kartelera hurreratu, eta irakurtzen hasi zen: Supersonik 2017 HASTRN espazio-ontziko arautegia:

>>Sarrera debekatua metro bateko altuera ez duen haurrari.

>>Sarrera debekatua 50 kilo baino gehiago pisatzen duen



haurrari.

>>Sarrera debekatua bi hankak neurri berekoak ez dituen haurrari.

>>Sarrera debekatua belarriak burutik bost zentimetrora iristen zaizkion haurrari.

>>Sarrera debekatua betaurrekoak, audifonoak, taupada-markagailuak edo beste edozein aparatu behar duen haurrari. Horiek eta antzeko zientoka debeku zeuden bertan idatziak espaziora bidaiatzeko lehiaketako oinarrietan."

Desberdintasunak, aniztasunak, aberastu egiten gaitu.

– En este segundo trimestre, los alumnos de 2º de ESO han trabajado en el diseño de **barcos en 3 dimensiones**, que han fabricado con plástico PLA y goma, una vez asimilado el programa de diseño en 3-D. Partiendo de sus ideas y borradores, han diseñado las piezas por ordenador y las han imprimido en una impresora 3-D, para construir luego los barcos. Tras varias pruebas y muchos nervios, han organizado una carrera sobre el agua entre los dos barcos de las dos aulas. – Los alumnos de 3º de Primaria están preparando **una ilustración** para el cuento *Haur bat espazioan* de Ana Jaka para participar en el concurso infantil y juvenil de ilustración y cuentos infantiles organizado por Elkar. Nos ha parecido adecuado introducir esta actividad en la clase de Educación Cívica, porque el cuento habla sobre la riqueza que aportan las diferencias: «En el mundo existen personas de distintos colores: naranjas, rosas, marrones...». La diversidad nos enriquece.

IKERKETA LANETAN

Badirudi ikerketa lanak egitea unibertsitateko zeregina bakarrik dela, baina garbi dago askoz lehenagotik hasi behar dela horretan. DBH1eko ikasleek EKI proiektua garatzen ari dira eta ikerketa estatistiko ezberdinak egin dituzte 2. hiruhilekoan.

Ikerketa estatistikoa burutu duten bitartean gauza asko ikasi dituzte, besteak beste, zer den fitxa teknikoa, zein den egin duten ikerketaren helburua, zer den lagina, lagina kalkulatzeko...

Aldi berean galdetegia prestatu dute lortu beharreko informazioa eskuratzeko. Hori egin eta gero, lortu duten informazioa antolatzen, maiztasun absolutua eta maiztasun erlatiboa kalkulatzeko, grafikoak egiten, konparazioak egiten eta ondorioak ateratzen. Egin dituzten jarduerak asko eta asko baliabide digitalak erabiliz egin dituzte.

Behin ondorioak atera ondoren, garrantzitsua da prozesuari amaiera egokia ematea eta egin duten ikerketaren berri eman dute Jakintzako beste ikasleentzako aurrean.



BUSTI BELDURRIK GABE, SALBU GAUDE ETA!

Urtero legez Batxillergo 1eko ikasleek uretako sorespen ikastaroa hiru astetan jarraian. Bertan ikasleek gai honen inguruan oinarritzko ezagutzak eskuratu dituzte. Saio horiek DBH 2n egiten duten lehorreko oinarritzko sorospenez jarraipena dira. Beraz, uretatik gertu arrisku egoeran bazabiltza lasai egon, Batxillergo 1eko edozein ikasle gertu badago behintzat. Ikastaroa Gurutze Gorriko kide den Mikel Unanuek eman du eta azpimarratzekoa da ikasleek izan duten jarrera.



LURZORUA AZTERTZEN

Eskolako Agenda 21 proiektuaren barne, aurten Lurzorua aztertzen ari gara. Herriko diagnostikoan egindako bi ekintza interesgarri aurkeztu nahi genizkizueke.

Alde batetik, DBH1eko ikasleak ikastolatik gertu izandako luizi baten ondorioak ikustera gerturatu ziren. 2015. urtean gertatu zen luizi hori eta oraindik ere agerian daude utzitako aztamak.

Bigarren ekintza interesgarria, Arramendi Baserriko Jose Ramonek DBH3ko ikasleekin izan berri duen elkarriketa izan zen. Lurzoruaren inguruko galdera asko egin zituzten gure ikasleek, baina bere eguneroko bizitzaren inguruko galderak izan zituzten gustukoena. Gustura, eta gehiago jakin nahian, hurrengo ikasturterako baserrira bisita egitea ere proposatu zuten. Badugu hurrengo urterako lan polita! Gure sustraiak ezagutu eta errespetatu ditzagun!



– Dentro del proyecto EKI, los alumnos de 1º de ESO han realizado unas **investigaciones estadísticas** con las que han aprendido qué es una ficha técnica, cuál es el objetivo de una investigación, cómo se calcula la muestra... Al mismo tiempo han preparado una encuesta y la han llevado a cabo, obteniendo y procesando la información que buscaban para terminar con las conclusiones. – Como todos los años, los de 1º de Bachillerato han participado en un cursillo de tres semanas de **socorrismo acuático** impartido por Mikel Unanue de Cruz Roja. El cursillo es continuación del curso básico que se imparte en 2º de DBH. – **El suelo** es el tema que se está tratando este curso dentro de la Agenda 21 Escolar y los alumnos han llevado a cabo dos actividades muy interesantes. Por un lado, los de 1º de ESO han analizado las huellas que dejó un desprendimiento ocurrido en 2015 cerca de la ikastola y, por otro, los de 3º de ESO han entrevistado a Jose Ramón del caserío Arramendi, que les habló de su vida y trabajo diario.

EKAIN BERRIN ETA ALBAOLAN

Gure denboraren makinak ez dauka gelditzeko asmorik, ez horixe! Gure ikasleek, ordea, oso atzera egin dute bidaia. Zestoako Ekain Berri kobazuloraino joan dira lehen mailakoak lehen gizakiek bertan utzitako aztarnak ikustera. Baina gure ikasleak, antzinakoak baino gutxiagoa ez direla adierazi nahian, beren arrastoak han utzita itzuli dira Ordiziara. Hauek ere milaka urte iraungo al dute? Auskalo!



Bigarren mailakoak, berriz, Pasaiaiko Albaola museoa izan dira eta itsasontzi baten barruak gertutik ikusteko aukera izan dute.

Aho zabalik geratu dira gure ikasleak halako tramankulua ikusita, bati baino gehiagori itsas-gizona izateko eta



balea harrapatzeko gogoia piztu zaio. Pasai San Pedrotik Donibanerako txalupako ibilbidean gozatu ederra hartu dute behintzat! Eta zeinek daki, agian Jakintza ikastolako ikasleren bat Urdaneta bezain itsas-gizon ospetsua izatera iritsiko da egunen batean!

KORRIKA

Egia da, nahiz haur, gazte edo heldu izan, zirkoaren xarmak beti sortu izan digula halako zirrara berezi bat, emozioz gainezka eta ilusioz blai uzten gaituena. Horixe bera gertatzen zaigu KORRIKArekin.

Izan ere, hizkuntza baten alde egitea, finean, guztien alde egitea da. Baten eta batzuen munduaren alde. Kultura unibertsalaren alde. Euskara hizkuntza, kultura eta mundua da: gure kultur izaera eta munduan nor izateko modu bat.

Jakintza ikastola ere, euskararen mundu horren barnean murgiltzen da/gara. Horregatik, apirilaren 7an, guztiok aterako gara korrikarekin bat egitera. Goizean KORRIKA TXIKIA ospatuko dugu. Bertan ikusiko dituzu/gaituzu hizkuntzaren malabaristak, akrobatikak, trapezistak, su-irensle optimistak, kontortсионistak, pailazoak, eskapistak, ahots kordan funambulistikak, fakirrak eta alkimistak. Azken finean bihotzaren ilusionistak. Guztiok, bidera aterako gara, herrira aterako gara.

Gauean berriz, Ordiziako zirkorrikalariak aterako dira, gara. Bat zuk eta bat nik, denok bat, bat eta batzuk gara, euskara bat, mundu bat.

Euskara mundu bat eta zu, hizkuntza-berdintasunaren aldeko jaira gonbidatzen zaitugu. Mundu unibertsalagoa sortzera. BAT egitera. Zuk egitera. EUSKARAZ. Etorri nahi? ZATOZ!!!



UDAKO AISIALDIA



Dagoeneko ikastolan eskura dezakezu udako aisialdiari buruzko informazio guztia. Bertan, Jakintzan burutuko ditugun ingeles eta robotikako udalekuetatik kanpo, honako hauek dituzu aukeran: Enjoy English, Ingeles udalekuak/English summer camps, Atzerriko egonaldiak, Udaleku irekiak, Elkarrekilan topaketak, Euskara mugara udalekua, Mendia eta pilota udalekua, Surf udalekuak, Udaleku ibiltaria, Gazte egonaldiak, Programazioa eta robotika udaleku irekia. Izena ematea, ikastolako idazkaritzan edo honako webguneetan egin ahal izango duzue:

www.aisialdia.eus

www.ikastola.eus

Aukera zabala eta gozatzeko modukoa benetan.

– **Ekain Berri y el museo Albaola de Pasaia** son los lugares a los que la máquina del tiempo ha llevado a nuestros alumnos de 1º y 2º de Primaria. Los de 1º han visitado la cueva de Zestoa para descubrir los vestigios de los primeros seres humanos y los de 2º han podido conocer un barco por dentro y han disfrutado de un viaje en txalupa entre San Pedro y San Juan. – **Korrika**. La ikastola Jakintza va a participar en la Korrika Txikia que se va a celebrar el 7 de abril por la mañana y por la noche se unirá a los zirkorrikalaris de Ordizia en la Korrika oficial. – Ya está disponible en la ikastola la información sobre la **oferta de ocio para el verano**: colonias de inglés y robótica en Jakintza, Enjoy English, colonias de inglés English Summer Camps, estancias en el extranjero, colonias abiertas, encuentros Elkarrekilan, colonia Euskara mugara, colonia Mendia eta Pilota, colonia de surf, colonia itinerante, estancias juveniles y colonia abierta de programación y robótica. Inscripciones en secretaría.



OROITZAPENAK

A ze garaiak! Urteak ez dira alferrik pasatzen! Eta era berean, a ze oroitzapenak! Izan ere, 40 urtek askorako ematen dute. Oroitzapen onak gehienak, txarrak ere badaude baina erraz ahazten ditugu.

Argazki honetako (1994. urtekoa) kuadrila ikusita, bertan agertzen garenon arteko bizipenak datozkit gogora: Juanita, zure goxotasuna, zure pazientzia... zenbat bilera, zenbat kamiseta, zenbat irteera elkarrekin *Kilometroak 93an!* Ana, zenbat abesti eta zenbat duo lankideen arteko bazkari eta afari ostean!

Beste guztiekin ere zenbat momentu on! Gogoratzen al zarete Inauterietako gure mozorroekin? Zein ilusioekin prestatzen genituen, nahiz eta gero lotsa-lotsa eginda ibili?

Berriro diot, a ze garaiak!

Maite andereñoa

Argazkian azaltzen direnak

Juanita Amundarain, Gurutze Fernandez, Mikele Iztueta, Blanka Muxika, Arantza de Juan, Lourdes Arratibel, Maite Irastortza, Karmele Barandiaran, Ana Altuna eta Mertxe Saez de Egilaz.



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g
Tfnoa. 943 16 05 40
20240 ORDIZIA
www.jakintza.eus
ordizia@ikastola.net

